

BALIO PROPOSAMENA

Bizitzen ari garen egoera dela medio, gure zerbitzuak jatetxe, taberna eta bezero ezberdinei eskainiko dizkiegu. Gure delivery zerbitzuari esker jende pilaketak ekidituko ditugu jendea kutsatzeko probabilitatea jeistearren. Era berean, ingurumenari lagunduko diogu kutsadura murriztuz, kotxeen erabilera txikitzen baitugu. Bestalde, onura soziala handituko dugu lanpostu berriak sortuz droien mantenimendu zein kontrolamendurako.

Bizi garen egoera dela eta, jatetxe eta tabernak momentu txarrak pasatzen ari dira, horren ondorioz estatuko ekonomia txarrerantz doa. Guk hauei zerbitzu moderno, azkar eta berritzaile bat eskeiniko diegu, ondoren bezeroak zerbitzu hauei esker beraien betiko taberna eta jatetxetan kontsumitu ahalko dute kutsatzeko probabilitate gutxiagorekin. Gainera erosoago kontsumitu ahalko dituzte produktuak internet bidezko eskaera aukera dela eta.

Gure delivery zerbitzua jatetxe eta tabernen produktuak bezeroen etxeetara eramatean datza. Gainera, bezeroek ez dute gehiago ordaindu beharko gure zerbitzuen erabileragatik.



Gure balio proposamena honetan datza: Covid-19aren kutsaketa posibilitateak gutxitu, lanpostu berriak sortu, ingurumenaren kutsadura txikitu eta bezeroen erosotasuna handitu.

